



**CIRCULAR PARA MADRES/PADRES EUSKALDUNES  
GURASO EUSKALDUNENDAKO OHARRA**

**Kaixo, Paz de Ziganda Ikastolako gurasook!**  
Zuen seme-alaben ikastetxean abian dugun GURASOLAGUN egitasmoaren berri emateko idazten dizuegu.

**Adituek diotenez, euskararen transmisioan eskolak eta familiak dira bi zutabe garrantzitsu.**

Gurasolagunaren bidez, euskaraz hitz egin edo praktikatu nahi duen gurasoari aukera hori eman nahi zaio, baina horretaz gain, baditu beste bi helburu aipagarri: bata, gurasoen arteko harremanak euskaraz izatera bideratzea eta, bestea, etxeko hizkuntz ohituretan eragitea.

Euskararen transmisioa erronka dugu eta zentzu honetan zuen konpromisoa, gurasoena, ezinbestekoa da etxeko hizkuntza-ohituretan eragin zuzena duzuelako.

**Guraso lagun egitasmoak, Euskaraz mintzatzeko ikastetxe bereko guraso talde txikiak osatzen datza.**

Astean behin ordubete inguru elkartuko zarete, ikastetxean umeak hartu baino lehen utzi ostean edota eskolaz kanpoko jardueretan dauden bitartean, kafetxo baten inguruan nahi duzuen egiteko; pote edo-kafe bat hartu, paseotxo bat eman, ikuskizun batera joan... Baina hori bai beti euskaraz!

Baldintza bakarra dago... Euskaraz komunikatzeko gutxieneko maila izan behar duzu (B.1. edo baliokidea) eta astean behin ordubete inguru zure taldearekin biltzeko konpromisoa hartzea.

**Paz de Zigandako** gurasoek osatutako talde berriak sortu nahi ditugu!

Interesa izanez <http://www.irunerrikomintzakide.org/gurasolagun> web-gunean informazioa eta izena emateko aukera duzu.

**Honenbestez, Gurasolaguna egitasmoko partaide izatera animatzen zaitugu euskara gehiago erabili eta entzun dadin!**

**GURASOLAGUNAK, ONGI ETORRIAK GURE MUNDURA!!**

[www.irunerrikomintzakide.org](http://www.irunerrikomintzakide.org)

izen-emate epea: urriaren 28a arte

izen-emate tokia: Paz de Ziganda ikastolako idazkaritzan edota zuen herriko Euskara Zerbitzuan.

Dohainik da.

\*Info +: Pablo Kormenzana- [mintzakide@topagunea.eus](mailto:mintzakide@topagunea.eus)

Izen-abizenak:		
Helbidea:		
Posta Kodea:		
Herria:		
Telefonoa:	Telefono mugikorra:	E-posta:
Euskara Maila:		

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
09:00-10:00					
15:30-16:30					
Bestelakoak					